

hh

hik hasi

udako topaketak

2011



Donostia
Uztailak 4, 5 eta 6

Golpez
9:00 - 14:00
Arratsaldez
16:00 - 18:30

hik hasi udako topaketak

2011ko uztailak 4, 5 eta 6

hh
hik hasi

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila

Sarrea

hik hasi proiektuak hamabigarren urtez antolatu ditu **udako topaketa pedagogikoak** EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailarekin batera. Uztailaren 4an, 5ean eta 6an gaurkotasan handia duten gaiei buruzko ikastaroak egingo dira euskaraz.

Ikastaroak eskaintzeaz gain, hainbat arlotako irakasleak elkartzeko eta beren esperientziak trukatzeko topaleku izatea ere nahi dugu, bertan hausnarketa, asmo, ideia, proiektu eta berrikuntzak plazaratuko direlarik.

Aipatutako ikastaroak goizez izango dira, eta, saio libreak arratsaldean.

Ordutegia

Ikastaroak: 9:00-14:00. Arratsaldeetako saio libreak, berriz, 16:00-18:00

Foro berezia: 9:00-17:00 (azken egunean, 9:00-13:30)

Topaketak Donostiako Santo Tomas lizeoan, Ekintza ikastolan eta EHUko Informatika Fakultatean izango dira.

Kopuru mugatuko ikastaroak

Ikastaro horietan aurrena izena ematen dutenek izango dute lehentasuna.

Hezkuntzaren etorkizuna nola hezi behar ditugu

Foro berezia

Uztailaren 4an eta 5ean 9:00-17:00

Uztailaren 6an 9:00-13:30

Adiskide, hezitzaile eta ekintzaile; guraso, kulturgile eta administrazioko ardura-dun; auzotar eta ikertzaile; zientzialari eta artista, ... ezin uka rol garrantzitsua jokatzeko duela hezkuntzak bizitzan, eta komunitateen, herrien eta munduaren bilakaeran.

Hausnartu eta eztabaida dezagun hezkuntzaz.

Zer hezkuntza behar du gizabanakoak? Eta gizarte deitzen dugun horrek? Zer-nolako garrantzia hartu behar dute kulturak, sustraiek, arteak eta mitologiak gizakiaren garapen existentzialean?

Nola irudikatzen dugu hezkuntza eragilea etorkizuneko gizartearen? Zertan ari gara asmatzen? Zertan ez horrenbeste? Semea/alaba eskolara bidaltzen duzunean, zer espero duzu? Jokoz kanpo geratzen ari al da eskola? Eskola eta gizartearen arteko harremana: noiz, noraino, nola, zertarako ireki? Zer amets ditugu hezkuntzari buruz?

Horiek dira buruan darabilzkgun galdera batzuk, baina gunea eta unea eskaini nahi dizkizugu zeure galderak izan daitezen benetan garrantzia dutenak. Zure ideia eta gogoetak hezkuntzako beste aritu eta adituekin partekatzeko parada eskaini nahi dizugu. **HIK HASI**k mahai baten bueltan elkartu nahi ditu hezkuntzari buruzko kezkek eta proposamenak dituzten hezitzaile, aditu, sortzaileak...

amesgai, ekingai: hurrengo belaunaldiak?

Metodologia

Espazio Irekiaren Teknologia (*Open Space Technology*) parte-hartze eta sormen handia, modu autogestionatuan. Jardunaldiaren ondorioz...

- Parte-hartzaileek nahi dituzten **gai guztiak** mahai gainean jarriko dira.
- Gai horiek guztiak **solasgai** izango dira bertaratuek nahi bezain sakon.
- Solasaldien idatzizko **txostena** osatuz joango gara, ikusgai izango da etengabe, eta amaitu bezain laster **e-postaz** jasoko duzu.
- Heldu beharreko gai nagusiak bereiziko dira eta ekin beharreko hurrengo urratsak definituko dira, lehentasunak ezarriko dira eta **lantaldeak** eratuko.

Gurekin amets egitera gonbidatzen zaitugu. Hausnartu, eztabaidatu eta bide berriak zabaltzera. Amets horiek puxiketari sartuko ditugu, puxikak zerura askatuko ditugu, eta haien atzetik abiatuko gara, pausoz pauso, eta txango horretara gonbidatuko ditugu Euskal Herriko hezitzaileak. Ba al zatoz?

Antolatzailea eta deitzailea: **HIK HASI** euskal heziketarako egitasmoa.

Laguntzailea eta bideratzailea: * Eleder **AURTENETXE PILDAIN**.

Antolaketa arloko ingeniariak ikasketak egina, irakasle gisa lan egindakoa (ikas-tolan eta unibertsitatean), irratirako elkarrizketak egiten dihardu azken hamar urteetan. Sormen arloko trebatzaile eta aholkulari gisa egiten du lan.

OHARRA: Taldean egingo dugu lan, eta talde-izaera sendotzeko, elkarrekin gosaldia eta bazkalduko dugu bertan.

* **GUTXIENKO KOPURUA BEHAR DA** *

Euskara ebaluatzeko proba

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Irakasle baten lana, besteak beste, ikasleak ebaluatzea da. Ebaluatzen den gaietako bat hizkuntza da. Hizkuntza irakasle batek ere sarritan ikasleak “ondo nola ebaluatu” erabaki behar du (azterketak sortu, eta abar). Ikastaro honetan, bereziki, euskara-irakasleek zer nolako irizpideak hartu beharko lituzketen aintzat azalduko da, ebaluazioa zuzena eta lagungarria izan dadin.

Norentzat

- Euskara-irakasle ororentzat (DBH, Batxilergo nahiz euskaltegietakoentzat).
- Hizkuntza irakasle ororentzat; adibideak, euskarari buruzkoak izango badira ere.

Edukiak

1. Konpetentzien ebaluazioa.
2. Azterketen eraikuntza.
3. Hizkuntza-ebaluaziorako baldintzak.
4. Hizkuntza-azterketaren prestaketarako urratsak
5. Europako Erreferentzia Marko Bateratua
6. Itemen idazketa
7. Itemen bilduma eta probaren egituraketa
8. Item eta azterketen zuzenketa
9. Probaren analisiak
 - a. Itemen analisia
 - b. Fidagarritasuna
 - c. Baliotasuna
 - d. Baremoak eta puntuazioen interpretazioa

Metodologia

Saioak teorikoak eta praktikoak izango dira. Adibide oker eta zuzenak aztertuko dira baita berriak sortu ere.

- * Iñaki PIKABEA TORRANO. Pedagogian Doktorea. EHUko irakaslea.
- * F. LUKAS MUJIKI. Pedagogian Doktorea. EHUko irakaslea.

Idazmena lantzen: sormena eta ekoizpena

Idaztea ekintza konplexua da: planifikatu, transkribatu eta orraztu egin behar dugu, behin eta berriro. Xake jolasaren antzeko ahalegin intelektuala suposatzen duela aipatu dute ikerlari batzuk. Idazten ikasten dabilen ikaslearentzat, hasiberriarentzat are eta zailagoa da: ideia sortu, papera eutsi, letrak lotu, idazgailua heldu, aurkezpena zaindu, ortografia menperatu, sintaktikoki zuzena eta koherentea den testua josi... behar du. Eskolatik prozesu hau guztia samurtu nahi badugu, ondo pentsatu beharko dugu zertarako jartzen ditugun idazten: letren noranzkoak lortzeko, gai baten inguruan dakitena azaleratzeko, sormena lantzeko...

Uztailak 4

"XXI. mendeko ikasle elebidunak eskuz/teklatur" gaia landuko da. Txinan "tibiwangzi" hitza erabiltzen dute "Hartu luma utzi karakterea" adierazteko. Gazteen artean zabaltzen ari den fenomeno da: ideogramak ipod bidez aukeratzen dituzte baina eskuz idaztea ahaztu egin zaie, karaktereen amnesia dute. Gure gizarte honetan, eskolan zein puntura arte idatzi behar da eskuz eta/edo teklatur? Ordenagailuekin gu baino azkarrago hasi ziren zenbait herrialdeetan zera diote: Eskuz idaztea eta teklatura bi hizkuntza desberdin dira baina egun ikasleek biak menperatu behar dituzte. Eskuz idaztea interesgarria izan daiteke konposaketa baten lehen zirriborroak egiteko eta ordenagailua errebixio-ortografia prozesuetarako. Bestalde, atzamar bidez pantailetan idazteko teknologiak ere baliagarriak izan daitezke letren formak barneratzeko. Bestalde, eskuz azkar idazten dutenek testu luzeagoak eta kalitate handiagokoak konposatzen dituztela baieztatzen da nazioartean. Testuak sortzeko, letren forma eta loturak menperatuta egon behar dira, exxearen adreiluak dira eta. Bi hitzetan, eskuzko idazketa nola sekuentziatu eta teklaturan zein baldintzatan jarri ikasleak azalduko du Iruñe Ibarrek.

* Iruñe IBARRA. EHUko irakaslea.

Uztailak 5

- Idazketa lantzen esperientzia pertsonalen kontaktetan: **pentsamenduen koadernoak**.
 - Pentsamenduen Koadernoaren aurkezpena ikasleen aurrean: hiru urratsak.
 - Ikasleen interes mapa Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan.
 - Pentsamendu idatziaren erabilera eta 3. eta 4. mailetakoa hizkuntza-edukiak.
 - Ahozkoaren eragina ikasleen pentsamendu idatziaren.
 - Interbentzio pertsonalizatuak.
 - Aurrera begira: Gelako aplikazioaren ingurukoak.

Ikasleen bizipen idatziak hainbat ikuspuntutatik aztertuko ditugu: idazketa edukien presentzia eta ahozko ereduaren eragina; norberaren interesak eta gelako interes mapa; interbentzio pertsonalizatuak eta gelako martxa. Azken finean, irailan bere gelan aplikatu nahi duen irakasleari errekursoak eskainiko zaizkio.

* Mikel PRIETO. Pedagogian doktore, urtetan ikastolan lan egin du eta gaur egun DBHko institutu publikoan irakasle dihardu.

Uztailak 6

- "Idazmena: lanketa zelako, emoitzak halako". "Idazmenaren lanketaren inguruko esperientzia Eleizalde Ikastolan: lanketa sistematikoa, kontrol zerrendak, autoerregulazioa eta ebaluazioa".

* Bermeoko ELEIZALDE ikastola.

- Idazterakoan sormena nola landu.

* Juan Kruz IGERABIDE SARASOLA. Idazlea

* KOPURU MUGATUA *

"Lumatik ahora, ipuinak"

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Nola kontatu idatzita dagoen ipuina

Askotan, ipuin bat kontatu nahi dugunean, ez dugu behar dugun materiala topatzen; ipuin idatzia dauden bezala ezin baitira kontatu...

Ikastaro honetan, idatzirik dagoen ipuin batetik abiatuz, ipuin hori kontatzeko eman behar diren urratsak jorratuko ditugu. Era erraz batean, testua prestatu eta egokitzeko teknikak landuz.

Ondoren, nola ez, prestatuturiko ipuinak kontatzeko trebatze bidean beste urrats bat emango dugu praktikara eramanez.

Hots, beste edozein ahozko komunikazio bitarteko bezalaxe, hitzak eta hizkuntza baliabideez gain, kontatzeko teknikak ere jorratuko ditugu: arnasa, ahotsa, begirada, gorputz adierazpena.

Norentzat

Bere lan jardueran ipuinak kontatzen dituztenentzat (irakasleak, hezitzaileak, begiraleak, eta abar). Baita ipuinak maite eta ipuin kontaketa trebatze bidean urrats bat eman nahi duen ororentzat ere (gurasoak, aitona-amonak, eta abar).

Helburua

Ipuinak kontatzeko trebatze bidean beste urrats bat ematea, praktikara eramanez. Ahozko komunikaziorako baliabideak ezagutzea eta praktikatzea: hitzak eta hizkuntza baliabideak, alde batetik, eta, bestetik, arnasa, ahotsa, begirada eta gorputz adierazpena.

EGITARAUA

- **Sarrera.** Ipuin eta ahozkototasunaren tradizioa eta garrantzia: ahozko literatura vs literatura idatzia.

- **Kontaketa baina lehenagoko lanak.** Ipuina aukeratzeko kontuan hartu beharrekoak: istoria antolatuta kontaketarako.

- **Ipuinak kontatu vs irakurri.** Lumatik ahora: idatzirik dagoen ipuin bat nola kontatu.

- **Gorputza.** Arnasketa: paparreko arnasketa eta arnasketa diafragmatikoa. Ahotsa: proiektzioa, tonua, tinbrea.

- **Hitzak.** Sentimenduen adierazpena. Ahoskera.

Metodologia

Praktikan oinarritutako lan metodologia proposatuko da. Ikastaro honetan, idatzirik dauden ipuinak nola kontatu landuko dugu era praktikoan: testua prestatzeko teknikak erakutsiz eta ipuinak kontatzeko baliabideak ikasiz.

*Ixabel MILLET. Kontalaria eta idazlea.

Berrikuntza Haur Hezkuntzan sentikortasunaren bidez

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Sentikortasuna, helduak haurrekiko dituzten harremanetan antzeman daitekeen gaitasuna da; haurren beharrei egoki erantzuteko helduak azaltzen duen gaitasuna, alegia. Zer esan nahi du horrek? Heldua haurren beharren aurrean presente dagoela, bere seinaleak antzematen dituela, ongi interpretatzen dituela eta modu egokian erantzuten dituela. Haurra testuinguruarekin harremanean garatzen da modu batera edo bestera. Testuinguru garrantzitsuenak pertsonekin dituen harremanak eta heldu horiek eskaintzen dioten testuinguru fisikoa dira; hau da, haur eskolan denboraren eta espazioaren antolaketa eta etxean ere berdin. Nolako testuingurua, halako garapena. Zer eskaintzen diegu haurrei eta nola hobetu dezakegu eskaintzen diegun hori?

Norentzat

Haur Hezkuntzako irakasleentzat eta gurasoentzat.

Helburua

Ikastaroaren helburuak dira sentikortasunaren garrantziaz jabetzea, zer den ezagutzea, sentikorra-
goak nola izan gaitzkeen ikustea eta horrek espazio eta denboraren antolakuntzan zer ondorio
ekar ditzakeen, etxean zein eskolan.

Landuko diren gaiak

Lehenengo eguna:

- Sentikortasuna ezagutu.
- Haurren jokabideak: behaketa naturalista.
- Haur bakoitzaren izaera.

Bigarren eguna:

- Helduen erantzunak.
- Norbere erantzunak haurtzaroarekin lotuz

Hirugarren eguna:

- Berrikuntza metodologikoak.
- Ondorio orokorrak.

Metodologia

Kasuetan oinarritutako metodologia erabiliko da. Bideoen azterketaren bidez, irakaslearen esku-
tik, ikasle bakoitzak aukera izango du lehenik talde txikian eta gero handian gaiarekiko ezagutza
garatzeko.

Oharra: ikastaroan parte hartzeko baldintza izango da: norbere praktikaren bideo zatiak ekartzea.

*Zatiak edozein egorakoak izan daitezke. Irudietan haurren jokabideak azaldu behar dute: jarduera gidatu
zein askeak egiten, besteekin harremanean, irakaslearekin harremanean. Bideoak guri belarazi ikastaroa
basi baino 15 egun lehenago.*

* Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko HAZITEGIko irakasle-ikerlariak.

Gure adimena nola eta norantz gidatu ikasten

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Produkzioa gero eta gehiago baloratzen den jendarte honetan, gizakion benetako osotasunaren prestakuntzan dauzkagun hutsuneak nabarmendu egiten dira: konfiantza eza, beldurrak, muña estuak, pertzepzio ez zuzenak, gure buruarekiko eta inguruarekiko sinesmen ez zuzenak, eta abar. Barne lanketa bidez norbanakoak berezko baliabideak landu, garatu eta plazaratzeko beharrezko indarra eta ziurtasuna eskuratuko du, bizitza kalitatea ikaragarri hobetuz eta ingurukoei hobetzen lagunduz. Ah! Eta gehiago eta hobeki produzituz.

Norentzat

Pertsonaren garapenari zuzendutako ikastaroa izanik, irakasle, guraso zein bestelako profesionalek har dezakete parte.

Helburuak

- **Kontrol mentalari buruz unibertsitateko ikerlarien mundu mailako ikerkuntza garrantzitsuenen berri eman.**
- **Norbere baliabideen ezagutza hobetu, erabili eta garatzeko tresnak landu.**

Gaien zerrenda

- Meditatzeko egoera nola lortu.
- Indarbertitzeko ariketa (edozein egoeratan gure burua indartzeko).
- Norbere baliabideen ezagutza errazteko tresnak.
- Norbere helburuak lortzea errazteko tresnak.
- Norbere buruan sinetsi eta konfiantza lantzeko tresnak.
- Jendaurrean gustura moldatzeko tresnak

(kontzertuak, hirtzaldiak, bilerak, azterketak, proiektu aurkezpenak, oposizioak, eta abar).

- Maite ditugun pertsonak beste era batera laguntzeko tresnak.
- Egunerokotasunean gertatzen diren gatazkak baretu eta konpontzeko tresnak.
- Errendimendu intelektuala hobetzeko tresnak (memoria, kontzentrazioa, eta abar).
- Errendimendu fisikoa hobetzeko tresnak.

Metodologia

Ariketak eta kontzeptuak praktikatu eta barneratu ondoren, sortzen diren galderak erantzungo dira. Hainbatetan, ariketa, praktikatu ondoren azalduko da. Beste batzuetan, azaldu ondoren praktikatuko da. Ikastaroa erabat parte-hartzailea da.

Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

* **Urko AROZENA.** Musikeneko (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko) Perkusio irakaslea, Irungo Udaleko Txistulari Taldeko Zuzendaria, Irungo Kontserbatorio Profesionaleko Txistu irakaslea, Adimenaren kontrolari zuzenduriko ikastaro ugarian parte hartu du: Silva Oinarrizkoa eta Ultraseminarioa. Graduatu eta praktikatzailea da. Nafarroako Unibertsitate Publikoan masterra egin berria du, azken lana ondokoa izanik: "Imajinario gidatua: jendaurrean ongi moldatzeko tresnak". Umiltasunez, bere burua ikaragarri maite du eta ingurukoei euren buruak maitatzen laguntzen die.

Garapenerako Hezkuntza: eskolak egiteke duen irakasgaietako bat

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Zer da Garapenerako Hezkuntza? Eskolak egiteke duen irakasgaietako bat izan arren, orokorrean ez da ezagutzen. Hala ere, irakasle eta ikastetxe asko ari dira “praktika onak” aurrera eramaten, hezkuntza-praktika bera hobetzen duela agerian utziz. “Porrot eskolarra gaingiditzen du”, “ikasleen motibazioa handitzen da”... horiek bezalako burutapenak modu “atseginez” deskubritzeko aukera izango dugu, sarituak izan diren esperientzia batzuetatik abiatuta; hots, praktikatik, hain zuzen ere.

Hauxe da Garapenerako Hezkuntza: “Prozesu hezitzailea da; herritar aktibo eta solidarioak, kontzientzia kritiko eta eraikitzaileak sortzen dituena; Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko erlazio ekonomikoak, politikoak, sozialak eta kulturalak ulertzen laguntzen duena; elkartasunarekin eta justizia sozialarekin zerikusia duten balioak sustatzen dituena, gizartea bere osotasunean aldatzeko eta gizakiaren garapen iraunkorra lortzeko”.

Norentzat

Edozein hezkuntza mailako irakasleentzat eta kezka duen edonorentzat.

Helburuak

- GH zer den ezagutaraztea, ikastetxeko egunerokoan txertatzeko nahia sortuz.
- Kurrikuluaren barruan duen garrantzia adieraztea eta legediak dioena erakustea.
- Sarituak izan diren hainbat mailetako “**praktika on**” ezagutaraztea.
- Gelan lan egiteko zenbait adibide eta baliabide praktikoko eskaintzea.
- “Aurreiritziak”, “uste okerrak”, “topikoak” eta “estereotipoak” gaingiditzea.
- Lan egitera animatzea, baliabide, tresna eta argudio sendoak geureganatuz.

Gaien zerrenda

- GHren kontzeptua. Oinarri teorikoa eta pedagogikoa.
- Hezkuntza mailetako kompetentziak eta praktika kurrikularrak.
- Eskolako eta gelako eguneroko dinamikan sartzeko beharrezkoak diren irizpideak.

Metodologia

“Praktika on” batzuk ezagutu (argazkien bidez..). Talde-dinamikak eta tailerrak.

Testuen azterketa.

Ikastaroa **teoriko-praktikoa** da. Nazioarteko legediatik abiatuta, saritutako zenbait esperientzia ezagutuko ditugu modu gozoan. Tailerrak ere egingo ditugu.

* **Konsue SALINAS**. Geografia eta Historian Lizentziatua, Historia Moderno eta Garaikidean doktorea; Nafarroako Historiako gaien gaineko ikertzailea, Irakasle Unibertsitate-Titulua, Haur Hezkuntza espezialitatean egin du lan azken urte hauetan. Bere lanak hainbat Biltzarretan aurkeztu ditu. Aurten, “Irakasleriari GHren inguruan beharrezkoa den prestakuntza nola eskaini aztertzeko” ikerketa egiten eta hitzaldiak ematen ari da.

Ez dut zigortu nahi

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Ez dut nire seme/alaba edo ikaslea zigortu nahi. Ba al dago beste aukerarik?

Jaso logela! Bukatu telebista ikustea! Mugitu, berandu goaz!

Utzi aldamenekoarekin hitz egiten! Ixo, eta hasi lanean! Laguna ez da jotzen! Niri ez hitz egin tonu borretan!
Sarritan, guraso eta hezitzaileok gauza bera 100 aldiz esaten dugunaren inpresioa izaten dugu, tonu guztietan, kasu egin baino lehen.

Aldi berean, zailtasunak izan ditzakegu gauza bat debekatzeko orduan, exijitzeko orduan...

“Ez” esatea kostatzen da egiten zaigu edota gehiegi esaten dugu.

Zailtasun asko ditugu agintekeriaren, xantxia eta penaren artean oreka edo erdiko neurria aurkitzeko. Eta, sarritan, gaizki-ulertuak sortzen dira...

Igeri egiten, gidatzen, sukaldatzen ikastea normalizatzen hartzen dugu... Gure autoritatea mantendu, autoritataria izan gabe, gure seme-alabekin komunikatzea ere ikas daiteke!

Nola hitz egin gure ikasle/seme-alabek entzun diezaguten... Nola entzun hitz egin dezaten...

Norentzat

Hezitzaileentzat, gurasoentzat eta interesa duen edonorentzat.

Helburuak

- Gure hitz egiteko moduan erreparatu eta horrek dituen ondorioetan.
- Marshall Rosenberg “komunikazio ez bortitzaren” ereduak aurkeztu.
- Zigorra, xantxia eta mehatxuen alternatibak azaldu.
- Trebatu ohiko egoeratan.

Landuko diren gaiak

- **Gure ikasle/seme-alabak gustatzen ez zaigun zerbait egin edota esaten duenean.** Nola esan benetan entzuteko? Zein muga jarri? Zer da autoritatea?

- **Gure ikasle/seme-alabak arazo bat duenean.** Nola lagundu? Zergatik eta nola entzun? Nola lagundu modu progresiboan bera bere arazoak konpontzeko gai izan eta geroz eta autonomoagoa izan dadin?

- **Bere jokabidea onartzen ez dugunean eta gurekin ez duenean ezer jakin nahi.** Nola konpondu arazoa inork sufritu gabe? ¿Nola egin zu errespetatua izateko, eta, aldi berean, haurra ere errespetatu?

- **Gure ikasleak/ seme-alabak beraien artean borrokatzen/haserretzen direnean.** Esku hartu behar da edo ez? Nola egin bitartekari lana, ulertzen lagundu eta pixkanaka beraiek beraien arazoak konpontzeko gai izateko?

- **Nola lagundu gure ikasle/seme-alabei pixkanaka-pixkanaka autonomiaren eta euren arrakastaren bidea aurkitzen?**

Metodologia

Teoria aurkeztu ondoren, ariketa praktikoaren bidez, gurasoek eta hezitzaileek eguneroko egoerak aztertu eta sakonduko dute. Beraz, ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

* Nerea MENDIZABAL. Psikopedagogo, haur masajeko hezitzailea eta komunikazioan aditua.

Familia eta irakasleriaren arteko harremanak

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Familia eta irakasleriaren arteko harremanak: hausnarketa eta hobekuntza elkarlanerako

Askotan eskola eta familia, haur eta gazteen hezitzaile gisa, “barku berean” joan behar dutela aditu dugu; baina nola egin elkarte hori?. Ikastaro hau, gaur egun beharrezkoak diren harreman horietaz hausnartzeko eta gure eskoletarako funtzionalak izan daitezkeen pista batzuk jasotzeko proposatzen da.

Norentzat

Irakasleentzat eta gaian ineteres duen edonorentzat.

Helburuak

- Gaur egungo familiaren aniztasunari buruz hausnartzea.
- Familia eta eskolaren arteko harremanak hobetzeko gako batzuk ezagutzea.
- Irakasleen eta familien artean ematen diren erlaziozko ereduak birpentsatzea.
- Eskolako familiekin proposamen kolaboratiboak sortzea.

Gaien zerrenda

1. **Familiaren aniztasuna: nolakoak dira gaur egungo familiak?**
 - a. Familiaren definizioa. Familia motak. Seme-alaben betetzeko beharrak.
 - b. Familien hezkuntza ereduak.
2. **Eskola eta Familia: zailak al dira harremanak?**
 - a. Joera homeostatikoak eta morfogenetikoak.
 - b. Bi sistemen arteko antzekotasunak // Desberdintasunak eta gatazkakortasunak
 - c. Familia eta eskolaren funtzioak.
3. **Familiaren partaidetza eskolan: nola egin eskolako diagnostia?**
 - a. Partaidetza motak.
4. **Familia eta eskolaren arteko harremanak: nola aurkezten gara familien aurrean?**
 - a. Komunikazioa: gako batzuk kontuan hartzeko.
 - b. Harremanetarako irakasleen ereduak.
5. **Familia eta eskolaren arteko harremanak: nola kolaboratu?**
 - a. Banakako bilerak familiekin.
 - b. Gelako bilerak.

Metodologia

Ikastaro honen planteamendua dinamikoa izango da. Jarduera gehienak talde txikitan egingo dira, eta, hainbat ariketa kasuetan oinarrituko dira. Ikastaroa **teoriko-praktikoa** izango da.

* Joxe AMIAMA. EHUKo irakaslea. Irakasle eta familien formatzailea.

Dibortzioa eta Eskola

Banaketa kasuetan, jokatzeko irizpideak

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Norentzat

Irakasle, hezitzaile eta gurasoentzat, zernahi ikasmaitatan daudela ere (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Lanbide Heziketa, Batxilergoa).

Gaiaren garrantzia gaurko gizartean

Banaketak sortzen dituen aldaketak mingarriak dira helduentzat, eta are larriagoak seme-alabentzat.

Banaketak familiaren egitura aldatu egiten du, haurrak gurasoetako batekin gelditzen baitira elkarbizitzen. Gaizki eramandako banaketa baten ondorioak, askotan zera bihurtzen dira: delinkuentzia jokabideak, jokamolde desbideratuak, ikasteko zailtasuna, gehiegizko sentsibilitatea, edota senideekiko eta orokorrean bere inguru guztiarekiko harreman txarrak. Guraso-lerrokatzearen sindromea oso ohikoa da gaizki eramandako banaketan.

Eskolatik, profesionalek orientatu eta lagundu egin dezakete ikasleonek adierazpen ezkorrak prebenitzen, gatazka horiei aurre egiteko baliabide egokiak hartuz gero.

Beste behin ere, eskolako profesionalei eronka handi bat aurkezten zaie, gelako funtzionamendu arruntean eragin zuzena duten familia egoera horiek direla medio.

Proposamen honek hordagoa botatzen die eskola erakundeei, beren ikasmaita guztietan haur zein nerabe hauen sozializazio prozesua lagun eta indar dezaten, betiere kontuan izanda ikasleok, gurasoen banaketa dela medio, familia haustearen esperientzia bizitzen ari direla edo bizi izan dutela.

Helburua

Jokatzeko irizpideak argi eta zehatz definitzea, eskolak esku-hartze positiboak egin ditzan banaketa gatazkatsuen egoeretan.

Gaiak

Eskola, banaketaren aurrean.

- a) Gatazkek kudeatzeko, guztiok jakin beharreko oinarri-oinarrizko lege kontzeptuak.
- b) Ikastetxeak duen gurasoekiko ardura.
- c) Irakasleak, tutoreak: banaketa gatazkatsuen kasu konkretuetan duten ardura eta inplikazioa. Gurasoekin eta ikasleekin nola jokatu.

Metodologia: teoriko-praktikoa

Aktiboa eta parte-hartzailea izango da. Gutxieneko alderdi teorikoak ere azalduko dira, eta tailer praktikoa egingo da.

Gaia diziplinartekotasuna zainduta landuko da, eta psikologiaren, zuzenbidearen eta gizartearen eremuak barne hartuko ditu.

* Nilda GORVEIN. Abokatua eta psikoterapeuta.

* Pilar LEGARRA. Psikologo klinikoa.

* *Ikastaroa euskaraz eta gaztelaniaz izango da.*

Elikadura eta eskola

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Ia egunero ari gara entzuten elikadura osasungarriaren inguruko mezuak, baina geroz eta gehiago dira obesitatea edo elikadura nahasteak dituzten haur eta gazteak. Gaixotasun horiek ondorio fisiko eta psikologiko larriak sortzeko arriskua dute. Hori kontuan harturik, gaixotasun horien prebentziorako nahikoa lan egiten al dugu? Ba al dakigu nola landu? Eskolaren ardura al da?

Elikatzeko ohitura egokiak, batez ere, etxean ikasten badira ere, eskola oso espazio garrantzitsua da horretarako: ikasgelan, jangelan, jolastokian... bizi ohitura osasungarriak ikasi daitezke eta ikasleekin ez ezik, gurasoekin ere landu daiteke.

Norentzat

Eskolako langileentzat eta gurasoentzat.

Helburuak

Ikastaro honetan elikadura osasungarria lantzeko tresnak eta elikadurari lotutako gaixotasunak (obesitatea, elikadura desorekak, zeliakia, hainbat elikagairi alergia...) aztertu eta landuko dira.

Landuko diren gaiak

- Elikadura osasungarria.
- Obesitatea.
- Elikadura desorekak.
- Elikadurari lotutako beste gaixotasunak.
- Eskolako hainbat espazio: jangela, jolastokia, ikasgela...
- Aisia eta osasuna.

Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

* Libe GARMENDIA. Dietista-Nutrizionista.

COACHING: pertsoneri zein erakundeei, XXI. mendeko gizarteari dagokion lidergo berrirako aldaketan laguntzeko entrenamendua

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Zer da

- Bizitzaren aurrean, norbere burujabetasunaren errespetutik, lidergo jarrera hartzen laguntzeko entrena- mendua.
- Bakoitzaren nahiak argitzeko, gaitasunak deskubritzeko eta erantzukizunak bideratzeko jardunbiderako laguntza.
- Iparroinarrri, estilo eta jardunbide jakinak batera biltzen dituen entrenamendu erangikorra.

Zertarako

- Bizitzak, bizi nahi duenez, inertziaz irten eta etengabe zentzua topatzea eskatzen digu bai proiektu per- tsonalean, bai organizazioetan, bai herri proiektuan. Bestela, arrain hilak bezala korronteak garamatzalako. Beraz, zentzu bila dabilenarentzat, entrenatzaile batekin errazago eta denbora gutxiagoan lortzeko.
- Pertsona eta organizazioei, bakoitzak nahi duen norbere bertsiorik onena lantzen laguntzeko.
- Bizitzari ikuspegi berri batetik begiratzen ikasteko. Erronka berriei aurre egiteko eta harreman sendoak modu eraginkorrean egiten laguntzeko.
- Bizitzan, oinarritzakoak diren zenbait konpetentzia lortzeko, entrenatzeko modu eraginkorra ikasteko: Norbera izaten ikasteko, pentsatzen eta emozioak erabiltzen ikasteko, elkarbizitzen ikasteko, komunikazio eraginkorra egiten ikasteko, ekiten eta egiten ikasteko. Guztiok, bakoitzaren berezitasunetik dauzkagun gaitasunak entrenatuz, konpetentziak lortzeko.

Norentzat

- Norberarentzat aldaketaren bat nahi, baina, zer eta nola egin argi ez daukanarentzat
- Hainbat zerbitzutan aritu (hezkuntza, osasuna, ...) eta aldaketa intuizio bezala sentitu arren, nola egin bila dabilenarentzat.
- Lanean eta pertsonalki harremanak aberastu nahi dituenarentzat.
- Bizitza pertsonalari eta profesionalari zentzu bateratua eman nahi dionarentzat.

Nola

Galderen bidez norbere nahiak, erantzukizunak eta gaitasunak aurkitzen lagunduz.

“Zurkaitz“ tailerra

Coach baten lehen urratsak “zurkaitz“ coaching aldaketan entrenatzeko egitarau propioarekin egiten dugu, Thomas Leonard eta Jhon Witmoren sisteman oinarrituz sortua, zazpi urteko eskarmentuarekin.

Edukiak

1. COACHING-AREN AURRETIKAKOAK
2. IPARROINARRIAK.
3. ESTILOA
4. JARDUNBIDEA
5. LANAREN ATZERA ELIKATZEA

* **Mirari BEREZIARTUA AROZENA.** Pedagogian lizentziatua. Coach pertsonala. Zuzendari coach erraztaileraren lizentziaduna. Coach exekutiboa. Lidergo berrirako entrenatzailea. 2004tik Coachville siste- marean lizentziaduna. Coachville Euskal Herria eta coachingaldaketaren sortzailea. Euskcoah, Euskal Herri osoko coach-en elkartearen sortzailea. Ikastola proiektuan 35 urteko esperientzia.

* **KOPURU MUGATUA** *

Sexuen hezkuntzarako teknikak

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Sexuen hezkuntzarako teknikak: zinema, argazkigintza, publizitatea, aldizkariak eta bideojokoak

Hedabideek eragiten dute sexualitateekiko ditugun informazio, jarrera eta espektatiba ugari. Hauetaz baliatuz eta ludikotasunaren ildotik, sexuen hezkuntza egiteko egunerokotasunean ditugun aukerak aprobetxatzen jakiteko balioko du ikastaroak.

Norentzat

Irakasleak, gizarte edo kale hezitzaileak, irakasle eskoletako ikasleak, aisialdiko monitoreak eta haur eta gazteekin (6-18 urte) lan egiten duen hezitzaile oro. Gurasoentzat ere oso erabilgarria izango da jarrera aktiboa hartzen badute ondoren etxean.

Helburua

- Hedabideen bitartez iristen diren mezuez jabetu eta ulertzeko irizpide propioak sortu
- Egunerokotasunean sexuen hezkuntza segurtasunez egiteko gaitu

Gaiak

- Sexologia: kontzeptu orokorrak
- Sexuen hezkuntza: zer da eta zertarako balio du
- Haurren eta nerabeen sexualitateen ezaugarriak
- Sexuen hezkuntzaren helburuak adinez-adin (6-18 urte)
- Argazkilaritza: historia laburra, konposizioa, funtzioak, aplikazioak eta dinamikak
- Zinema: generoak, aplikazioak eta dinamikak
- Publizitatea: gorputzen tratamendua eta dinamikak
- Haurren liburuen ilustrazioen analisia: estiloen funtzioak eta errepresentazio sexistak
- Aldizkarien edukiak: motak, edukiaren analisiak eta dinamikak
- Bideojokoak, ipuinak eta musika: baliabideak
- Parte-hartzaileen proiektuaren garapena

Dinamikak haur eta gazteekin aplikatzerakoan topatuko diren oztopoak identifikatu eta irtenbideak eta baliabideak eskainiko dira.

Metodologia

Ikastaroa, oro har, **teoriko-praktikoa** izango da eta hainbat dinamikaren bidez landuko da bereziki.

*Nerea SANCHO ESNAOLA. EHUko Sexualitatearen Psikologiako irakaslea, Donostia. Bitxigorria Sexologia Zerbitzuko zuzendaria, Donostia.

*Veronica HUERTO. Psikologia eta Sexologia. Bitxigorria Sexologia Zerbitzuko Sexu Hezitzailea. Donostia.

Osasun mentala guztion eskubidea da

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

“Psikologiaren jakinduria aberatsegia da gaixoei bakarrik eskaintzeko” *Fritz Perls*

LOEn irakurri dezakegu esaldi bitxi hau: “heziketaren eskubide baliogarriena bizitzarako heztea da”. Gauzak horrela, gure aparatua psikikoa ere zaindu beharko dugu matxuratu baino lehen, ezta?

Maitasun Kondizionala, linterna moduan hartuta, gaixotasun psikikoa eta osasun mentala aztertuko ditugu. Estimua eta sintomatologiaren arteko oreka non dago? Behar afektiboak aztertu eta asetzen saiatu. Amorrua frustrazioarekin lotuta dagoela ikusi. Karakterra beldurraren adierazpena da. Zoriontasunaren inguruan mintzatu. Eta menpekotasuna, erruduntasuna, barkamena eta esker onaren inguruan sakondu.

DBHn eta Batxillergoan ere gertatzen dena aipatuko dugu. Esate baterako, osasun mentala ez al dago dantzan adolezentszian? Orientazio akademikoa soilik al da gure lana? Osasun mentala ez genuke portaera arazoetan soilik hartu behar kontuan.

* **Patxi IZAGIRRE ORMAZABAL**. Psikologoa eta Psikoterapeuta.

* *KOPURU MUGATUA* *

Konpetentzia matematikoa lantzeko estrategia didaktiko baten garapena

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Azken urteotan asko hitz egin da, askotan bakarrik modu teoriko batez, konpetentzia matematikoari buruz, zer den, zertan bereizten den matematikatik ikasgaia bezala eta abar. Baina denbora aurrera doa eta ikasgelako praktikan horrek guztiak zernolako isla eduki beharko lukeen erantzun gabe geratzen da kasu askotan. Agian galdera zera da: Zertan aldatu beharko genuke gure gelako praktika ustezko premia berri honi erantzuteko? Horrela, bete-betean estrategia didaktikoan munduan sartzen gara, ba horixe da ikastaro honen mamia: konpetentzia matematikoa lantzeko estrategia bat aurkeztu eta garatu.

Norentzat

Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklokoentzat eta Bigarren Hezkuntzakoentzat.

Helburuak

1. Konpetentzia matematikoa lantzeko “estrategia bateratzailea” ren ezaugarriak identifikatzea eta norberaren praktikan kokatzea.
2. Konpetentzia matematikoa lantzeko “bateratze lanak” aztertzea eta erabiltzea.
3. “Bateratzen lanak” aplikatzeko baldintzak aztertzea.
4. “Bateratzen lanen” diseinuan abiatzea.

Gaien zerrenda

- 1. **EGUNA.** Konpetentzia matematikoa eta ezagutza matematikoa: desberdintasunak. Berrikuntza didaktikoaren oinarriak eta baldintzak. “Estrategia bateratzailearen” ezugarriak: printzipio didaktikoak. “Bateratze lanen” egitura.
- 2. **EGUNA.** Dagoeneko egindako “bateratze lanekin” praktikak. Eginiko “Bateratze lanak” erabili eta aztertu. Elementuak identifikatu eta aztertu. Informazioaren teknologiaren aplikazioa lan horiek garatzeko.
- 3. **EGUNA.** “Bateratze lan” berrien diseinua eta garapena. Proiektu berriak martxan jarri. Egindako lanari buruz balorazio kritikoa.

Metodologia

Ikastaro honetan lan gehiena praktikoa izango da. Lehen egunean, eta sarrera modura, ordu beteko azalpen saioa izango da egin beharreko lanaren oinarriak jartzeko. Ondoren, ordenadoreak erabiliz egingo dugu lan, “bateratze lan” batzuk modu horretara prestatuak egongo dira eta zuzenean erabiliko ahal izango dira. Bigarren eta hirugarren egunean, alderantziz egingo dugu lan: hasieran lan praktikoa (ordenadoreak erabiliz) eta azken ordua egindakoaz hitz egiteko solasaldi modura gordeko dugu. Bateratze lan berrien disenua ere ordenadoreak erabiliz egingo dugu. Hirugarren egunaren, azken saio hori ikastaroaren laburpena eta balorazioa egiteko gordeko da.

*Jesus M. GOÑI. EHUko irakaslea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Haurrei zuzendutako maskaragintza

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Betiko osagai sinpleak baina ideia eta teknika berriez jantzita

Inauteriak, urtebetetzeak, Eguberrietako festak, Olentzeroak, antzerki saioak, buruhandiak, erraldoiak... Milaka aukera sormena lantzeko, eta, askotan, milaka buruhauste teknika egokiak bilatzeko.

Zeregin horretan laguntzeko, tailer hau proposatzen dizuet. Papera, kartoia eta gomaespuma izango dira gure osagai nagusiak. Material merke eta sinpleak baina teknika moderno eta haurrentzako egokituak. Hainbat eredu ikusi, egin, ikasi eta erakutsi ere egingo dugu. Guk oinarrizko pausoak eta prozedurak ematen lagunduko dugu, eta, hortik aurrera, haurra izango da lana-artearen gidaria. Eredu txukunak oso denbora gutxian eginak.

Uztailak 4

Aurkezpena, sarrera eta materialaren banaketa.

Papera eta etxe guztietan topa daitezkeen ontziak erabiliko ditugu. Mozten, tolestean, itsastean, lotzen eta sormena pizten ikasiko dugu. Nik ereduak eman, eta ikasleak haurrak balira bezala jokatuko dute, bakoitzak bere bidea eginez: kareta, txanoak, buruhandiak...

Uztailak 5

Kartoia izango da protagonista nagusia baino, ez bakarria. Buruhandiak, Olentzeroak, kareta, txanoak...

Uztailak 6

Gomaespuma ezberdinez baliatuko gara orain arte ikasitako teknikak lantzeko. Buruhandiak, txotxongiloak, animalien buruak...

* **Pablo FEO GOMEZ.** Ekonomian Lizentziatua, Monitore Okupazionala tituluduna eta Leitzako tailer okupazionalaren arduraduna 14 urtez. Umeei eta familiei zuzendutako tailerren antolatzailea azken hamar urte hauetan.

* **KOPURU MUGATUA** *

Autismoaren azalpena ikuspegi praktikotik

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

1943an Leo Kannerrek lehenengo aldiz *autismoa* definitu zuenetik, nahaste horren eragina nabarmenki areagotu da; alde batetik, diagnostikorako kriterioen aldaketaren ondorioz, eta beste aldetik, hainbat eremutako profesionalek (irakasle, psikologo, pediatra, psikiatra...) gai honen inguruan duten ezagutzaren areagotzeagatik. Hori dela eta, GAUTENAK ikastaro horren bitartez gizarteari autismoaren gaur egungo egoera azaltzea du helburu.

Norentzat

Familientzat, ikasleentzat eta autismorekin zerikusia duten profesionalentzat.

Uztailak 4, astelehena

Autismoaren Definizioa

- Zer da *autismoa*; definizioa, GNOak, Wing-en triada, batera ager daitezkeen sintomak, etiologia, epidemiologia...
- Nahaste autistaren inguruko teoriak: adimenaren teoria, koherentzia zentrala, funtzio exekutiboa, arreta konjuntua, zentzumeneren ezberdintasunak...
- Diagnostikoa: helburua, urratsak, tresna psikometrikoak...

Uztailak 5, asteartea

Tratamendua

- Garatzeko esparru orokorrak: hezkuntza, gaitasun sozialak eta irudimena.
- Erreferentziako programak: Hanen, Teacch, RDI.
- Esku-hartzeak: psikopedagogiakoa, farmakologikoa.
- Lan dinamikak: banakakoa, familiakoa eta taldekakoa.
- Jokaera arazoak.

Uztailak 6, asteazkena

GAUTENA

- Erakundea: historia, deskribapena, helburuak...
- Zerbitzuak: diagnostikoa eta tratamendua, hezkuntza, eguneko zentroa, etxebizitza, aisialdia eta denbora libre, familia laguntza...
- Zerbitzu sarea: Osakidetza, Diputazioa, Gizartekintza, Hezkuntza...

Metodologia

Azalpen teorikoak egin, kasu praktikoak aztertu eta eztabaidatu.

* Jesus GARCIA ALONSO, * Jara LARREATEGI EREÑA eta * Inge LAZKOZ DEL CAMPO. GAUTENAKo talde klinikoko psikologoak.

Bideoa: editatzen ikasteko, Pinnacle Studio programaren bidez

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Ikastaroan Studio bideo programa ezagutzeaz gain, kamara batekin grabazio egokia nola egin daitekeen ikasiko dugu. Hau da, planoaren morfologia ikusiko dugu (Plano Jenerala edo Orokorra, Plano Amerikarra, Plano Erdia... Kameraren mugimenduak, fisikoak eta bere ardatzetakoak...), nola grabatu eta grabazioa nola antolatu editatzerakoan. Horiek, edizioan lagunduko gaituzten eta azken emaitza hobetuko duten atal garrantzitsuak dira.

Studio programa oso erraza da ulertzeko eta erabiltzeko, eta ideala da bideoz zein DVDz proiektuak eraikitzeko. Programa horrekin lan egiteak zera esan nahi du: lehenik bideoak, argazkiak, audioa, animazioak eta abar lortu beharko ditugula, gero bigarren fase batera pasa eta pixkanaka elementu horiei guztiei edizioaren bidez forma emateko. Horietako elementu batzuei ukitu berezia eman beharko diegu (formatua aldatuz, filtroak erabiliz, apainketak eta abar eginez). Azkenik, elementu guztiak nahasi ditugunean, nahi dugun formatura aterako ditugu, izan zinta batera, DVDra edota aurkezpen multimedia batean txertatzeko artxibo batera.

Landuko da

Proiektuak sortzea

1. Proiektu berri bat sortu.
2. Osagaiak.
3. Antolamendua.
4. Gordetzea.

Bideoaren kaptura

1. Kaptura txartelak.
2. Konpresioa, hardware eta software bidez.
3. Kapturatzeko iturria aukeratzea.
4. Kapturatutako bideoa gordetzea.

Bideo kanalak

1. Bideoaren stream-a kanaletan sartzea.
2. Irudi finkoak sartzea.

Bideoaren edizioa eta muntaia

1. Edizio erreminten erabilera.
2. Zatitzea.

3. Trantsizioak.
4. Lausotzeak.

Bideo filtroak aplikatzea

Soinu kanalak

Gordetzeko aukeraketa

1. Plano motak aukeratu.
2. Horien gordeketa egin.

Tituluak sortzea

1. Titularrak sortu.
2. Titularren ezaugarriak.

Proiektuak esportatzea

1. Bideoaren formatua hautatzea.
2. Fitxategira, kanpoko gailu batera edo DVDra esportatzea.

* **Pelaio EIZAGIRRE DE GARATE**. PADEko (Heziketarako Ikus-entzunezko Digitalen Produkzioak) errealizadorea eta gerentea. Esperientziaduna ikus-entzunezkoak eta telebista saioak egiten.

* **KOPURU MUGATUA** *

GIMP: irudiak tratatzeko

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Zer da GIMP?

IRUDIAK TRATATZEKO programa bat da, "photoshop"-aren oso antzekoa. SOFTWARE LIBREA eta doakoa da.

Irudien erabilera gero eta beharrezkoagoa gertatzen da gure eguneroko lanetarako.

GIMP programak irudiak gure behar konkretuetara egokitzen lagunduko digu.

Gaur egun, irudi bat begiratzerakoan ia ezinezkoa gertatzen da jakitea benetako irudia den ala aurretik tratatua izan den, horretarako programa profesional ugari baitaude.

Gure kasuan, GIMP programa aukeratu dugu irudiak tratatzeko edo eraldatzeko.

Ikastaroaren helburua hori izango da: irudiei ukitu berezi bat ematea emaitza hobea lortzeko.

Ikastaroan landuko diren edukiak

- Irudi batek dituen ezaugarriak aztertzea: erresoluzioa, formatu desberdinak, irudiaren neurria, "pisua", eta abar.
- Irudia hobetzea: kolorea, argitasuna, enfokea, eta abar.
- Eskanerraren erabilera egokia ezagutzea.
- GIMP programak dituen erreminta desberdinak erabiltzen ikastea.

Horrekin guztiarekin, besteen artean, horrelakoak egiten ikasiko dugu

- Irudi zahar bat hobetzea edo konpontzea.
- Irudi desberdinekin montaje bat egitea.
- Aurpegi bat makilatzea, begien kolorea aldatzea, hortzak txuritzea...
- Pertsona baten aurpegiko azala gaztetzeta.
- Irudi bat ebakitzea eta fondo berri batean txertatzea.

*Xabier LERTXUNDI. Irakaslea.

** KOPURU MUGATUA **

Irakaskuntza 2.0 (hastapenak)

Uztailak 4, 5 eta 6 9:00-14:00

Internet, bai mundu zabala! Eskaintzen dizkigun aukera guztietan pentsatzen jartzen garenean beldurra ere sartzen zaigu. Hainbeste tresna, hainbeste baliabide, hainbeste informazio, hainbeste webgune, nola da posible mundu horretan mugitzea? Gure ustez, horrek eragiten duen beldurra alde batera uztea beharrezkoa da, eta horretarako ikastaro honetan murgiltzea proposatzen dizuegu. Bertan, sareak eskaintzen dituen baliabide batzuk (foro, wiki eta blogak) gure bizitza pertsonalean eta lanean erabiltzea eta bere onurez gozatzeko jarraibideak ezagutuko ditugu.

Norentzat

Internet eta web 2.0-ak eskaintzen dituen baliabideen erabileran interesa dutenentzat. Oinarritzko maila.

Helburuak

- Web 2.0ren nondik norakoak ulertzea.
- Interneteko mundu zabala irakaskuntzara hurbiltzea.
- Hainbat tresnen erabileran trebatzea.
- Baliabide desberdinek eskolan eta ikasgelan izan dezaketen erabilgarritasuna ezagutzea.
- Sarean parte hartzera motibatzea ikasgelan egiten dena zabalduz.

Edukiak

1. Web 2.0ra sarrera: zer da?
2. Google baliabideak (gmail, docs, reader, picasa....).
3. Wikiak hezkuntzan.
4. Adibideak eta beste baliabide interesgarriak (dropbox, netvives, igoogle, sare sozialak).

Metodologia

Ikastaroak izaera **praktikoa eta kolaboratiboa** izango du.

- * **Itsaso IZAGIRRE**. Psikologian Lizentziatua. Euskaltegiko irakasle eta Kosmodisea proiektuan laguntzaile.
- * **Lorea FERNANDEZ**. Pedagogian Lizentziatua. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta Kosmodisea proiektuan laguntzaile.

* *KOPURU MUGATUA* *

Web 2.0 eta Google aplikazioak irakaskuntzan

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Norentzat

Interneten informazioa eraginkortasunez erabili nahi duen edonorentzat.

Helburuak eta ezaugarriak

Ikasleek bizitza osorako jaso beharko duten prestakuntzaren xedean, diseinatutako Curriculum berri guztiak ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak dituzte oinarri. Definitzen diren hezkuntza konpetentzia orokorren barnean aurkituko ditugun azpi-konpetentzia asko estuki lotuta daude informazioaren tratamendu eta teknologia digitalaren erabilerarekin.

Testuinguru horretan kokatu beharko genuke ikastaroa. Izan ere, informazioa bilatu, gorde, antolatu eta partekatzeko modu eraginkorrak ezagutuko ditugu, horretarako erabiliko ditugun bitartekoak web aplikazioak izango dira.

Lehen zatian, Internet berriaren ezaugarriak azalduko dira, hainbestetan aipatu den web 2.0 hori. Web horrek konpetentzia digitalen lorpenean izan dezakeen eragina aztertuko dugu.

Ikastaroaren bigarren zatia, gure ikasleei askotan esaten diegun bezala, “informazioa guk maneiatzen ikasi behar dugu, ez informazioak gu”. Horretarako, eskura ditugun tresnak ezagutu eta erabiliko ditugu. Oraingoan, irakaskuntzan aritzeko Googlek eskaintzen dizkigun aplikazio batzuk ezagutuko ditugu eta lanean arituko gara aplikazio horiekin, batez ere.

Edukiak

- Sarrera orokorra egingo da web 2.0ren mundu zirrargarriaren gainean.
- Behin web 2.0k irakaskuntzari egin diezazkiokeen ekarpenak ikusita, googlek eskaintzen dituen hamaika aplikazioetatik hainbatetan sakonduko dugu: google docs, calendar, reader, sites...

Baldintzak

Teknikoki tresna errazak direnez, ikastaroan parte hartzeko, nahikoa da ordenagailu erabiltzaile arrunta izatea; ez da beharrezkoa, beraz, iaotasun berezirik informatika alorrean. Maila guztietako irakasleentzat zuzenduta dago. Komenigarria litzateke Gmail-en korreo kontua izatea.

* Maite GOÑI. Mondragon Unibertsitateko (MU) irakasle eta Ordiziako Jakintza ikastolako IKT taldeko partaide eta euskaljakintza egitasmoaren arduraduna.

* *KOPURU MUGATUA* *

Sare sozialak, nerabeak eta hizkuntza(k)

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Informazioaren garaian, Informazio eta Komunikaziorako Tresna berriek (IKT) hezkuntzaren, hizkuntzen eta harremanen izaera eraldatu dute. Areagotu.

Sare sozialak horren isla dira. Gazteenak harreman berri, egonkor, dinamiko eta multimediatan murgildu dira. Zer paper jokatzen du hor hizkuntzak? Eta edukiek?

Norentzat

Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat. Gazteekin lan egiten duten hezitzaileentzat. Hizkuntza eta teknologia berrien arteko kezka duten profesionalentzat. Nerabe eta gaztetxoek gurasoentzat.

Helburuak

- Sare sozialak eta, oro har, teknologia berrien prozesuak ezagutzea harreman sozial berrietan.
- Hezkuntza eta teknologia berrien uztarketa, gazteen sareetan.
- Hizkuntza bizi baten erronkak, panorama horretan. Hezkuntza komunitatea gune garrantzitsu gisa.

Landuko diren gaiak

- **Harreman sozial berriak.**
- **Hezitzaileen alfabetatze digitala.**
- **Interneten bilakaera. Web 2.0, sare sozialak.**
- **Hizkuntzaren garrantzia inguru multimedia berrietan.**
- **Sare sozialak ezagutu eta haietan murgildu.**
- **Edukien azterketa: hizkuntza, hezkuntza eta harremanak.**

Metodologia

Azalpen teoriko diakronikoa. Interneten bilakaera. Harreman sozial berrien inguruko gogoeta. Ikastetxe eta beste HAINBAT ingurutako egoerak aztertu, solas eta eztabaidaren bidez. Proiektu erakargarriagoen sorkuntza areagotu. Irudimena + garapena. Sare sozialak ezagutu. Harreman sozial berriak eta hizkuntza uztartzeko gakoak. Bibliografia sarean eta liburu/aldizkarietan landu. Beraz, ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da; gazteenen harreman sozial berrien gaineko gogoe-tari teknologia berrien inguruko aplikazioa eta jarduna uztartuz.

***Patxi GAZTELUMENDI.** Interneteko eduki kudeatzailea. Kulturgintza eta komunikazioaren esparruan lanean azken 15 urteotan. Interneteko hainbat proiektutako sortzailea eta dinamizatzailea. *irratia.com* | *albisteak 2.0* | *EH 2.0* | *armiarma.com* | *Ikas2deak.info*. Larrabetzuko eskolako guraso elkartearen, teknologia berriak eta hezkuntza proiektuan (*larrabetzukoeskola.org*). Berritzegune, ikastetxe, hainbat erakundetan prestakuntza ematen teknologia berrien gainean.

IRRIAK atera zure etxeko argazki eta bideoei

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Etxean ditugun bideo eta argazkiak disko gogorrean ahazturik izaten ditugu. Horrez gain, askotan ez gaude pozik gure kamerarekin lortutako emaitzekin. Argazkiak antolatu, hobetu eta partekatzeko bideak emango ditugu ikastaro honetan. Horrez gain, Irrien Lagunak klubean gure lanak zabaltzeko modua ere azalduko dugu.

Jarraian dituzue ikastaro honen edukiak:

1. Irudigintza

- Irudi digitala. Argazki onak ateratzeko gomendioak. Argazkien erresoluzioa.
- Picasa programa: Argazkien antolaketa eraginkorra. Oinarrizko moldaketak. Loteka lan egitea.
- Inprimaketa. Posterrak. Diapositiba aurkezpenak. Oparitzeko CD-ak. Argazkiak esportatu.
- Picasaweb: on-line albumak. Argazkiak partekatzeko moduak.

2. Bideogintza

- Argazkien bideoak sortu Fotos Narradas programarekin.
- Oinarrizko edizioa Windows Media Maker programa erabiliz.
- Bideoak formatuz aldatu Format Factory programarekin.
- Youtube eta antzeko zerbitzuetara bideoak igotzeko prozedura.

3. Irrien Lagunak

- Irrien Lagunak klubeko webgunera argazkiak eta bideoak igotzeko prozedura.

Oharrak:

- Erabiliko ditugun programak oinarrizkoak izango dira. Windows sistema eragilearekin datozenak eta doako softwarea erabiliko da.
- Sistema eragilearen oinarrizko ezagutza ezinbesteko da.
- Ikastarorako Gmail kontu bat izatea gomendatzen da.
- Norberak etxean dituen argazkiak eta bideo fitxategiak erabiliko ditu proposatzen diren lanketak egiteko.

* Fultxo CRESPO. Bianako Erentzun ikastolako irakaslea.

* *KOPURU MUGATUA* *

2-3 urteko haurren psikomotrizitate praktika: Nola? Zergatik? Zertarako?

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Gero eta garbiago geratzen ari da bizitzaren lehenengo 3 urteak oinarritzkoak direla. Hala uste dute, behintzat, hezitzaile, pedagogo, psikologo, psikiatra, neurologo, neuropediatra eta beste profesional askok. Haur Eskoletan zer nolako baldintzak jarri, zer egin eta nola egin adin horrek

duen garrantzia kontuan hartzeko? Psikomotrizitate praktika saiatzen da 2-3 urteko haurrak ulertzeko baliabideak sortzen. Horrela, horien premiei eta gogoei erantzun egokia emateko. Ikastaroan, 2-3 urteko haurrentzako psikomotrizitate praktika nolako den aurkeztuko dugu.

Norentzat

2-3 urteko haurrekin lan egiten dutenentzat, edota 2-3 urteko haurrez interesa dutenentzat.

Helburuak

- 2-3 urteko haurrak pixka bat gehiago ezagutzea, haien hezkuntza gehiago egokitzeke.
- 2-3 urteko haurrentzako psikomotrizitate praktika ezagutzea.

Gaiak

- 2-3 urteko haurrak:
 - Bere burua ziurtatu.
 - Banaketaren aurrean, ziurtatu.
 - Mugimenduaren plazera.
 - Eragitearen plazera (gorputza, espazioa, objektuak).
- 2-3 urtekoentzako Psikomotrizitate gela. Baldintzak.
- 2-3 urtekoen psikomotrizitate saioa.
- 2-3 urtekoekin psikomotrizistaren jarrerak eta ekintzak.

Metodologia

Esan den bezala, ikastaro teoriko-praktikoa da: praktikaz hitz egingo dugu. Parte hartzen dutenen esperientziak, kezak eta iritziak funtsezkoak izango dira ikastaroaren dinamikan. Argazkiak eta zenbait irudi erabiliko dira gaia lantzeko.

* Alvaro BEÑARAN ARANZABAL. Pedagogia terapeutikoan lizentziatua. Acouturier praktikako psikomotrizista, Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakaslea eta Asefop-eko prestatzailea.

* KOPURU MUGATUA *

Orkestra musikaterapeutikoak

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Musikazaleak, taldezaleak eta orkestrazaleak garenontzat

"ORKESTRA MUSIKATERAPEUTIKOAK: soinuen orkestra, hitzen orkestra, mugimenduen orkestra, zenbakien orkestra, emozioen orkestra, marrazkien orkestra..."

Musikaterapiak dioskunez, **hizkuntza emozionala** dugu musika, hots, gure psikismoaren partitura.

Eta partitura partekatzeko denez, hainbat orkestra osatuko ditugu:

Orkestra musikaterapeutikoak

- Soinuen orkestra.
- Hitzen orkestra.
- Mugimenduen orkestra.
- Zenbakien orkestra.
- Emozioen orkestra.
- Marrazkien orkestra.

Bat-batekotasuna landuz

- Sormen soinu magmak: *aulkez, kaxez, ezta-rriz, musika tresnez...*
- Sormen oihartzunak.
- Sormen melodiak: *plakaz eta kanikaz, txirulaz, txistuz...*

Entzumena landuz

- Entzumen kinetikoa: *tai jia, tangoa, baltsa, rocka...*

- Entzumen tonikoa: *besarkaterapia, masaje musikalak...*

- Entzumen bibroakustikoa: *giza txalaparta, dutxa fonikoak, akorde besarkadak...*

- Entzumen akustikoa: *hots paisaiak, bidaiak musikalak, tinbre eta tonu bereizketa...*

Erritmoa landuz

- Gorputz perkusioa: *matematika polirritmikoa, desfaseak, elipsiak...*
- Zapatarritmia *mayumana*.
- Mahairritmiatik danborretara.

Ahotsa landuz

- Arnasketa-proiekzio teknikak.
- Fonazio-entonazio teknikak.
- Jolas prosodikoak: *izen amildegia, puxikaz...*

Partitura landuz

- Drama partiturak: *filmetako soinu bandak*.
- Ikono partiturak: *somatogramak, collagefoniak*.
- Notazio partiturak: *ostinatoak mekano eran, erritmogramak mila tinbrez*.
- Pentagrama lurrean, horman, velcroz erantsita eta velledan.
- Melodia eta harmonia *Boombackers* tutuz.
- ...

* **Aitor ZENARRUZABEITIA**. Musika irakaslea. Logopeda, musikaterapeuta, psikomotrizista eta psikopedagogoa.

Haurrentzako masajea

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Ukitu + sentitu = kokatu

1. eguna: UKITU
2. eguna: SENTITU eta KOKATU

Norentzat

Haur Hezkuntzako irakasleentzat, gurasoentzat eta, oro har, haur txikiekin ari direnentzat.

Edukia

Masajea 0 urtetik 3 urtera bitartean

- Elkarrizketa larruazalak ukituz egoteko premia.
- Larruazalaren muga sentitzeko premia.
- Gorputz osoa larruazalaren babespean integratzeko premia.
- Hori guztia haurraren erritmoa eta premiak errespetatzen, eta haurraren larruazala, eta organoen edo segmentuen funtzionamendua (batetik heltze prozesu zefalo-kaudalean eta bestetik kaudo-zefalikoan) estimulatzen duen pertsonak emana.
- Masajea; komunikazio modulatuzaileen estimulazioaren bitartekaria: ikusmena, entzumena, larruazala, mimika, ahotsa, alaitasuna, eta abar.
- Erditze traumatikoaren ondoko masajea.
- Masaje reichiar zefalo-kaudala.
- Masaje Shantala kaudo-zefalikoa.
- Oinen masaje erreflexua.
- Masaje lehenengo egunetik bertatik.
- Masajea lehen 4 hilabetetan.
- Masajea 4 hilabetetik urte betera.
- Masajea eta berraseguratzeko mugimendua urte betetik 3 urtera bitartean.
- Giro lasaia eragiten duten egoerak sortzea, helduari egoten lagunduko diotenak, haurrak ukitzeko eta aldi berean “ukitu”a izateko esperientzia naturala bizitzeko, eta, elkarriketa tonikoa oinarri hartuta, besteak ematen dizkion erantzunen arabera aldatzen joateko haurrak dituen premietan laguntzekoa.

Metodologia

Teoriko-praktikoa izango da.

* Ramon MAUDUIT. Psikologoa eta prebentzioan aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Adimen emozionala: irakasleen gizakitasuna

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Irakasleen gizakitasuna: eragiteko tresnak.

Joan den urtean oso ondo pasa genuen. Ikusi genuenez, irakaslea gizakia ere bada, bere beharrekin eta bere ahalmenekin.

Gizakiaren barru aldea landu eta gero, beste urrats berri bat egingo dugu aurren. Gizakia ez da bakarrik bizi. Harreman sare batean bizi gara, sozialak garelako. Harremanak lantzeko, hainbat bide desberdin ditugu: zorientasuna, elkartasuna, maitasuna, beharrak, erakundeak, lan-erlazioak,...

Ikastaro honetan, nolabait, hori guztia bilduko dugu, ERAGINAK lantzeko. Gure lana guztiz praktikoa izango da (eta dibertigarria, noski baietz), eta denontzat egongo da irekita.

Espero ez diren hainbat gai jorratuko ditugu: hipnosia, sedukzioa, kementa, arnasketa, gorputzaren garrantzia, gure jokaera naturalak,...

Eta helburua? Geure bizitza erlazioen munduan ongi finkatzea, gure nortasuna eta egoera hobea eta sendoagoa izan daitezen.

Baina, norik lor dezake hori guztia?: EDONORK.

Edozein gizakik, biziki hala nahi badu, ustekabeko ahalmenak eta botereak sor ditzake bere barrutik.

Eta hori guztia, zertarako? Hori guztia lanean erabil dezakegu? Noski baietz, baina gure lorpenak horretara murriztea nahiko tristea da. Gure benetako helburua, gure bizitza osoa izango da.

Aurtengo erronka hauxe izango da: **Prest al zaude zure barruko bitxiak eskuratzeko ?.**

Horrela bada: ONGI ETORRIA.

* Ibon DE LA CRUZ. Psikologoa.

* **KOPURU MUGATUA** *

Yoga saioak irakasleentzat

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Yoga, orain dela milaka urte Indian sortutako zientzia-filosofia da. Bere barnean, zientzia, filosofia, psikologia, natur medikuntza, espiritualtasuna eta abar biltzen dira. Yoga sistematikoki praktikatu da belaunaldiz belaunaldi, norberaren oreka, osasun fisiko eta psiko-emozionala hobetuz. Gaur egun, irakasle edo hezitzaile izatea ez da lan erraza eta agertutako zailtasunen ondorioek gugan nahi genukeena baino eragin handiagoa dute, esaterako antsietatea, estresa, gaitz fisikoak, urduritasuna, lo egiteko arazoak, kontzentrazio falta, tristura, depresioa, eta abar. Yogako teknikek eragin hauek arindu eta aurreikustez gain, gorputza indarberritu eta lasaitu, arnasteko gaitasuna hobetu, odol zirkulazioa aktibatu, kontzentrazioa erraztu, errendimendu fisikoa hobetu, gure ingurukoekin erlazioak hobetu eta osasun orekatsua lortzen dute.

Norentzat

Norberaren osasun fisiko eta psikologikoa hobetu nahi duen edozein irakaslerentzat, hezitzaileentzat, begiralerentzat edo gurasorentzat.

Helburuak

- Asana edo jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitu, lasaitu, indartu, energia harmonikoki mugitu eta jarrera desegokien ondorioz agertzen diren arazo fisikoak aurreikusi eta landu (herniak, lordosiak, zifosiak, eta abar).
- Arnasketak, nerbio-sistema eta emozioetan daukan eragin zuzenez jardun eta teknika horiek behar diren mementuetan erabiltzen ikasi.
- Adimena lasaitu eta kontzentratzeko teknikak ikasi, hauek ikasleekin landu ahal izateko.
- Bisualizazioen bitartez norberaren eta ikasleen ikasteko gaitasunak haunditzen ikasi.
- Erlaxazio sakonaren bitartez, fisiko eta psikologikoki lasaitzen eta eraberritzen ikasi.

Edukiak

- Osasuna indartzeko 5 puntuak.
- Asanak edo jarrera fisikoak eta beraien onurak.
- Arnasketa prozesua. Bere eragina emozioetan. Arnasketa mota desberdinak.
- Kontzentrazio ariketak.
- Bisualizazioa. Teknika desberdinak.
- Erlaxazio sakona.

Metodologia

Gai bakoitzaren azalpena egin ondoren, tekniken praktikari ekingo diogu. Manta txiki bat ekartzeta eta arropa eroso eta galtzerdiekin etortzea komeni da. Ikastaroa **teoriko-praktikoa** izango da, baina batez ere **praktikoa**.

*Marina PINTOS MARTIKORENA. Pianojole, musika irakasle eta yoga irakaslea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Jai ospakizunetan, haur, irakasle eta gurasoak elkarrekin dantzan

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Jai ospakizunetan, egun berezietan... musika eta dantza ohiko baliabideak dira. Haurrek gehienetan gustuko izaten dute dantza. Beraientzat jolasa da. Ederra da adin guztietako parte-hartzaileak elkarrekin inplikatzeko direnean.

Imajinatu egoera: txikiak, gazteak eta helduak (irakasleak, gurasoak...) elkarrekin dantzan, une atsegina partekatzen, egunerokoan eraiki ohi ditugun adin eta rol ezberdintasunak une batez alboratuta.

Barruan parte hartzen edo kanpotik begira, erraz konturatzen gara egoera horrek pizten digun sententziora: Zein ederra! Zergatik? Seguru asko, une ludiko soil bat baino haratago, irudi hezitzaile baten aurrean gaudelako.

Norentzat

Batez ere, Lehen Hezkuntzako irakasleentzat eta aisialdiko begiraleentzat; erabilgarria berdin. Haur Hezkuntzako eta DBH-ko irakasleentzat. Helburu profesionalik ezean edonorentzat dibertigarria.

Helburuak

- Jai ospakizunetan, egun berezietan, aisialdian... haur eta helduek elkarrekin gozatzeko moduko dantzak ikastea.
- Dantza-gidari lana egoki betetzeko irizpideak jasotzea.
- Jarduera horren zeharkako ekarpenak ezagutzeko (balio hezitzaileak).
- Dantza tradizionalaren erabilgarritasuna deskubritzea, baliabide ludiko eta hezitzaile bezala.
- Europako beste herrietako musika eta dantzen gertutasuna eta edertasuna deskubritzea.

Metodologia

Praktikoa erabat, arina, ludikoa, atsegina, eta dantzak barneratzeko egokia. Landutako dantza eta bestelako edukien gida-laburpena (apunteak), musika eta bideo grabaketa.

Edukia

HH edota LH-ko haurrek eta helduek elkarrekin egiteko moduko 15-20 dantza ikasiko ditugu.

- Euskal Herriko zein Europako beste eskualde batzuetako dantza tradizionalak guztiak. Beraz, ez zaizkigu arrotz egingo. Gure kultura senetik erabat barneratzeko modukoak.
- Dibertigarriak, eta normalean, haur, gazteko zein helduen gustukoak.
- Trebezia berezirik eskatzen ez dutenak. Nahikoa da dantzok ezagutzen dituen irakasleak mementuan gidari lana egitea.
- Ez dira "haurren dantzak". Nagusiek ez daukate zertan 'haur' paperean jarri. Nagusiek nagusi bezala dantzatuko dituzte, haurrek haur bezala, gazteek gazte bezala... eta guztiak goza ditzakete plantarik egin gabe; adinik ez dutelako; herrikoiak direlako.

* **Patxi MONTERO**. Euskal Herriko eta Europako dantza tradizionalen irakaslea.

* **KOPURU MUGATUA**

Ahotsaren erabilera egokia

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Ahots mintzatua egoki erabiltzea zenbait lanbideetan nahitaezkoa dela badakigu baina urtetik urtera ahotsa osasuntsu mantentzea zailagoa egiten zaigu. Ohitura desegokiek eta lagungarri ez diren inguruneek gure ahots kalitatean dituzten eraginak ez nabaritzea, norberak bere ahotsa ez ezagutzea eta teknikoki nola hobetu ez jakitea... ahots arazoa agertzen laguntzen duten faktoreak dira.

Irakaskuntza munduan bereziki urtetik urtera disfonia kasuen kopurua handitzen doa. Arazoari aurre egitea eta prestakuntza egokia izatea ezinbestekoak dira ahotsa osasuntsu erabili ahal izateko.

Norentzat

Ahotsa egoki erabiltzen ikasi nahi dutenentzat eta, bereziki, ahots mintzatua lan-tresna dutenentzat.

Helburuak eta edukia

- Ahotsa zer den jakitea.
- Ahotsaren ohiko osagaiak ezagutzea.
- Ahots mintzatua egoki erabiltzen ikastea.
- Norberak bere ahotsa ezagutzea.
- Ahots osasuntsuak eta patologikoak bereiztea.
- Prebentzio mekanismoak ulertzea.

Horretarako, ahotsa sortzeko eta aldatzeko behar ditugun mekanismoak ikasi eta praktikatu ditugu (arnasketa, koordinazioa, erlaxazioa, ahoskera, inpostazioa...). Disfonia zer den, nola antzeman, agertu ondoren zein bide jarraitu eta zeintzu diren prebentzio neurriak ikasiko ditugu.

Ahotsa egoki erabiltzeko burutu behar diren ariketak eta zenbait aholku **teoriko-praktiko** eskainiko dira.

Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da.

* Mirari PEREZ GAZTELU. Mediku-Foniatra. AransGiko Zuzendari Medikua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Jendaurrean hitz egiten ikasi

Uztailak 4, 5 eta 6

9:00-14:00

Eszenatokian, klaustroetan, eskola kontseiluetan eta gurasoekin bileretan hitz egiteko teknikak. Nola saihestu beldur eszenikoa.

Norentzat

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat eta ahotsa lan instrumentu gisa duen ororentzat.

Helburuak

- Beldur eszenikoari aurre egiten ikastea.
- Pertsona bakoitzaren ahotsak dituen baliabideetatik abiatuz jendaurrean hitz egiteko gida pertsonala sortzea.
- Irakasleek eta parte-hartzaileek dakartzatenetatik abiatuz, jendaurrean hitz egiteko kezkei aurre egiten ikastea hitza erabiliz.

Edukiak

- Ahots eta Gorputz hizkuntza.
- Beldur eszenikoa.
- Irakurketa eta inprobisazioa.
- Eskoletako ohiko gaien antolaketaren aplikazioa.
- Hainbat eszenatokitako hizkuntza: klaustroetan, bileretan, eskola kontseiluetan eta guraso bileretan.
- Irakasleek nola lagundu ikasleei modu praktikoan euren lan aurkezpenetan edo ahozko azterketetan.

Metodologia

Esan behar diren edukien eta ahots teknikaren artean sortutako ariketa praktikoetan oinarritutako metodologia.

* Ahotsakestudio. www.abotsakestudiovoices.com

* *KOPURU MUGATUA* *

Oh happy, kanta eta dantza ezazu

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Gaur egungo abestiak, ahotsa, kantua eta dantzak elkarrekin lotuko ditugu, era dibertigarrian.

Norentzat

Musika Eskoletako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Musika eta Hizkuntza irakasleentzat eta ahotsa eta mugimendua uztartu nahi duen ororentzat.

Helburuak

- Abestea: beldurtzen eta lotsa direnak aska daitezen, kantatzearen gustua eta ohitura berreskuratzea edota abestia gustuko duenari gozaten jarrai dezan ahalbidetzea.
- Koreografia errazak ikastea.
- Musikaren dinamikak lantzea.
- Hainbat hizkuntzatan praktikatzea.

Edukiak

- Ahots eta Gorputz Teknika: oinarritzko ariketak.
- Errepertorioa: gaur egungoa.
- Koreografiak.
- Oinarri musikalak.

Metodologia

Kantu modernoaren ikuspegitik landutakoa.

* Ana ELORZA. Filologoa eta Musikaria. Ahotsakstudiovoices-eko zuzendaria eta irakaslea.

Zertan jolastuko gara?

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Udako hiru egun horietarako jolasteko proposamena luzatzen dizuegu. Ikastaro horretan ez dugu teorizatuko, nahiz eta landutako guztia oinarri teoriko sendoak dituen. Praktikara bideratutako ikastaroa da, eskolako ikasleekin jolasteko tresnak ikasiko ditugu. Jolas klasikoak, berriak, Euskal Herrikoak, mundukoak, luzeak, motzak, lasaiak, arinak...

...eta hori bai, denak euskaraz ondo pasatzeko jolasak.

Norentzat

Jolastea gustuko duen edonorentzat.

Helburua

Euskaraz jolasteko tresnak ikastea.

Gai zerrenda

Zertan jolastuko gara...

1. Eskolako irteeretan? (animazio-jolas erraldoiak).
2. Jolas orduan? (soka-esku-goma).
3. Gela barruan? (Hizkuntza jolasak).

Zertan jolasten ziren...

4. Gure aiton-amonak? (trebetasun jolasak).

Zertan jolasten dira...

5. Munduko beste herrialdeetan?

* Gipuzkoako Urtxintxa Eskolako hezitzaileak.

Antzerki irakasle jantziak, antzerkiaren balioak hedatzeko

Uztailak 4, 5 eta 6
9:00-14:00

Antzerkigintza ezagutzeko parada izatea zentzu askotan altxorra da. Antzerkigintzak beregain jasotzen dituen balio eta balore guztien zerrendaz gozatu ahal izatea, opari bat. Baina, ezagutza horiek jasotzeko, emailak behar dira: pasiodun emailak, esperientziadun emailak, emailak jakitun...

Hortaz ohartuta, aurten EHAZEK (Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte) antzerki irakasleak prestatzeari ekin nahi dio eta antzerkia irakasten hasteko bide ezberdinak atzemaitearekin batera, antzerkiaren pedagogiari erreparatuko dio.

Beraz, ikastaro honen bidez, antzerki irakaskuntzan trebatzen hasi nahi dutenei, lehen baliabide batzuk emango zaizkie.

Norentzat

Antzerki irakaskuntzan jardun nahi dutenentzat.

Helburuak

- Antzerki irakasleak trebatu eta berriak sortzea.
- Euskaraz antzerkia irakasteko metodologia ezberdinak ezagutzea.
- Antzerki irakasleei jolas eta ariketa ezberdinak eskura araztea.
- Adin guztietako ikasleekin aritzeko ikasbideak ematea.
- Norberaren esperientzia irakaspenera nola bideratu ohartaraztea.

Metodologia

- Ikastaroa teoriko-praktikoa izango da.

*Ander LIPUS. Aktorea. *Ainara GURRUTXAGA. Aktorea. *Asier SOTA. Aktorea.

OHARRA: EHAZEK bere irakasleen lan polita osatzerakoan kontuan hartuko du ikastaro hau.

* KOPURU MUGATUA *



Arratsaldeetan

SAIO IREKIAK

Antzerkiari lotutako saioak egingo dira

Uztailak 4, astelehena, 16:00etan

Hainbat aurkezpen

* EHAZEko kideak (Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkarte).

Uztailak 5, asteartea, 16:00etan

Antzerki saio berezia

* EHAZEK antolatua.

* *Antolatzaileon esku geratzen da beste hainbat eskaintza egiteko aukera.*

m a t r i k u l a

Matrikula epea: maiatzaren 31 arte.

Ikastaroen prezio arrunta 115 euro

Prezio murriztuak:

- **hik hasi**ko harpideak 65 euro
- Langabetuak 65 euro
- Harpide langabetuak 30 euro

* Oharra: langabetu agiriaren kopia bidali beharko da matrikulatzerakoan, postaz nahiz posta elektronikoaz.

* Ikastetxeko harpidetza bakoitzaz irakasle bat balia liteke.

Ordainketa:

- Zure matrikula aintzat hartua izan dadin, dirusarrerara egin beharra duzu kontu zenbaki honetan:
EUSKADIKO KUTXA 3035 - 0036 - 15 - 0360062005
- Dirusarrerara egiterakoan, jarri matrikulatuaren izena eta bi abizenak.
- Ordainagiririk ez bidali.
- Ikastaroan lekurik ez balego edo ikastaroa egingo ez balitz, dirua itzuli egingo zaizu.

Matrikula **www.hikhasi.com/topaketak** helbidean sartuz.

Adi! Ekainaren 15ean mezu bat jasoko duzu zure *helbide elektronikoan*, Topaketen egitaraua eta dagokizun ikastaroaren xehetasunak adieraziz.

Edozein argibidetarako: 943 371 408 telefonora deitu edo hikhasi@hikhasi.com e-postara idatzi.

Obarra: antolatzaileen esku gelditzen da programari behar diren aldaketak egitea.

m a t r i k u l a t x a r t e l a

Izena eta bi abizenak.....

Etxeko helbidea.....

P.K..... Herria..... Herrialdea.....

E-posta..... Tel.

- Irakaslea Maila Ikastetxea.....
- Ikaslea Ikasketa?.....
- Bestelakoa

Zein ikastarotan hartuko duzu parte?

Gutxienez 1 eta gehienez 3 ikastaro aukera zenitzake (batean lekurik ez balego, bestean sartzeko zuzenean). Markatu lehentasunak 1, 2 eta 3 zenbakiekin.

- | | |
|--|---|
| <input type="checkbox"/> 1. Hezkuntzaren etorkizunaz | <input type="checkbox"/> 18. Bideoa: editatzen ikasi |
| <input type="checkbox"/> 2. Euskara ebaluatzeko proba | <input type="checkbox"/> 19. GIMP: irudiak tratatzen |
| <input type="checkbox"/> 3. Idazmena lantzen | <input type="checkbox"/> 20. Irakaskuntza 2.0 hastapenak |
| <input type="checkbox"/> 4. Lumatik ahora, ipuinak | <input type="checkbox"/> 21. Web 2.0. Google aplikazioak |
| <input type="checkbox"/> 5. Berrikuntza Haur Hezkuntzan | <input type="checkbox"/> 22. Sare sozialak, nerabeak, hizk. |
| <input type="checkbox"/> 6. Gure adimena gidatzen | <input type="checkbox"/> 23. IRRIAK ateratzeko |
| <input type="checkbox"/> 7. Garapenerako Hezkuntza | <input type="checkbox"/> 24. Psikomotrizitatea 2-3 urte |
| <input type="checkbox"/> 8. Ez dut zigortu nahi | <input type="checkbox"/> 25. Orkestra musikaterapeutikoak |
| <input type="checkbox"/> 9. Familia eta Irakasleria | <input type="checkbox"/> 26. Haurrentzako masajea |
| <input type="checkbox"/> 10. Dibortzioa eta Eskola | <input type="checkbox"/> 27. Adimen emozionala |
| <input type="checkbox"/> 11. Elikadura eta Eskola | <input type="checkbox"/> 28. Yoga saioak |
| <input type="checkbox"/> 12. Coaching | <input type="checkbox"/> 29. Jai ospakizunetan dantzan |
| <input type="checkbox"/> 13. Sexuen hezkuntzarako teknikak | <input type="checkbox"/> 30. Ahotsaren erabilera egokia |
| <input type="checkbox"/> 14. Osasun mentala | <input type="checkbox"/> 31. Jendaurrean hitz egiten |
| <input type="checkbox"/> 15. Konpetentzia matematikoa | <input type="checkbox"/> 32. Oh happy, kanta eta dantza |
| <input type="checkbox"/> 16. Maskaragintza | <input type="checkbox"/> 33. Zertan jolastuko gara? |
| <input type="checkbox"/> 17. Autismoa | <input type="checkbox"/> 34. Antzerki irakasle jantziak |

hik hasi aldizkariaren
HARPIDETZA
50 euro urtean

- 10 aldizkari + monografikoak
- % 30eko beherapena gure materialetan
- Baliabide pedagogikoen GIDA
- % 10eko beherapena bidaietan
- Beherapen bereziak Topaketa eta Jardunaldietan

www.hikhasi.com/harpidetza

2011ko
UDAKO TOPAKETAK
Matrikula arrunta
115 euro

Harpideentzat
65 euro

hik hasiko harpide izan nahi dut

Izena..... 1. deitura.....
2. deitura Zure tel.:.....
Etxeko helbidea P. K.....
Herria.....Herrialdea.....
E-posta.....
Lantokia.....
IFZ-NAN.....

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Transferentzia

Sinadura

Irakaslea

Ikaslea

Bestelakoa.....

Antolatzaileak

hh
hik hasi

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

**Hezkuntzaren Teoria
eta Historia Saila**

Babesleak

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



Donostiako Udala